

Alienak eta hondamendiaren turismoa



SUKAR HORIA

Atzean utzi ditugu udako hilabeteak eta aurtengoan ere hizpide izan dira klima larrialdiaren adierazle diren hainbat muturreko gertakari meteorologiko eta horien ondorioekin lotutako albisteak. Besteak beste, ozeano eta itsasoe-tako tenperatura igoeren, Mediterraneo inguruan zabaldu diren suteen, tenperatura errekor berrien, uzta galeren, lehorteen eta uholdeen berri izan dugu.

Testuinguru horretan, hainbat turista Kaliforniako hego-ekialdean dagoen Heriotzaren haranera hurbildu dira. Aire girotudun kotxeetatik irten eta 55 gradu zentigradu markatzen zituen termometroaren aurrean atera dituzte argazkiak. Horrela hilezkortu dute Lur planetan inoiz izandako tenperatura altuenaren unea bizitzearen momentua. Eta hori guztia, AEBetan, aurrekaririk gabeko berrote handienaren erdialdean. Bizi dugun krisi ekosozialaren testuinguruan, aipatutako fenomenoak hondamendiaren turismo izendatzeko ezaugarri guztiak betetzen ditu.

Bestalde, bolo-bolo ibili dira uda honetan alienekin lotutako albisteak ere. AEBetako militar ohi batzuek, herrialdeko kongresuaren aurrean, esan omen dute gobernuak alienen ontziak eta arrasto biologikoak ezkutatzeko dituela.

Hasierako gaiak orain aipatutakoarekin inongo loturarik ez badu ere, gai biak

elkarrekin lantzeak krisi ekosozialaz go-goetatzeko aukera ematen digu. Kasuaren inguruan pentsatzen hasi eta ondorengo galdera datorkigu burura: zertara etorriko ote dira alienak Lur planetara? Zientzia fikzioa eta herri kulturaren arabera, alienak Lurra konkistatzera etorri ohi dira. Baina, zer dute hemen konkistatzeko? Meatzaritza espaziala egitera etorriko ziren agian? Zientzia fikzioan ez bezala, errealitatean, laister hemen ez da egongo zer konkistatu eta zer lapurtu, dena agortze bidean baikaude. Gainera, nork konkistatu nahiko luke gero eta bizigaitzagoa den planeta bat?

Hori dela eta, hipotesiak egiten jarrita, estralurtarrak, agian, etorkizuneko destino turistikoaren berri izatera etorri diren espazioko bidaia agentzia batekoak izan liratekeela pentsa genezake.

Argi dago, Lur planetan, kapitalismo basatiaren logikarekin jarraituz, aukera guztiak izango ditugula espazioko izakiek hemen hondamendiaren turismoa praktikatzeko. Aspalditik jakin baitakigu bizitzak erdigunean jartzen ez dituen sistema ekonomiko eta politiko honek basakeriara garamatzala. Turista alienak ez baditugu nahi, antolatu beharko gara –oraindik garaiz baikaude– hondamendizaleentzako interesgarria izango ez den leku bat elkarrekin borrokatzeko, eztabaidatzeko, sortzeko eta eraikitzeko. ●

Ikasturte hasiera beroa

ARANTZA GUTIERREZ
EHU-KO IRAKASLEA

Esatea topiko bada ere, irailerako ikasgaiak utzi zituen EHUko zuzendaritzak. Izan ere, irakasleen aurreikusitako lizentzia eta baja batzuk betetzeko beharrezko ordezkapenak ez zirela helduko jakin zuten sail batzuek udako oporren bezperan. Beste aldetik, ordezkapenak egiten dituzten hainbat irakaslek ez zekiten zein motako kontratua izango duten irailetik aurrera. Salatu dutenez, Unibertsitate Sistemaren lege espainiarrak ezarritakoa zuhurregi aplikatuz, irakaskuntza baino ez zaie aitortuko eta ordainduko, eta hori ere ez osotasunean, ez baita kon-tuan hartuko formakuntza- eta prestakun-

tza-denbora, eskola- zein tutoretza-or-duak baizik. Horren aurrean, irakaskuntza antolatu behar dutenak kezkatuak daude eta beldur daude joko-arau berriei are zailagoa izango ote den arlo batzuetan ordezeko irakasleak lortzea. Bestetik, zuzenean kalteturikoek mobilizazioak iragarri zituzten, eta irtenbide adostua lortu ezean, gerta liteke ikasturte-hasiera beroa izatea honakoa. Hala ere, ikusteke dago, asko baitira azken urteetan aldebakarrez administrazioetik inposaturiko neurriak, ia erantzun sozialik eragin ez dutenak, azken finean batzuek uste baitute langile pribilegiatuek ari garela. ●